



2002/09/30eko prentsa-oharra

KANPO MERKATARITZAREN ESTADISTIKAK (KAMEE)

2002ko 2. hiruhilekoa

EUSKAL AE-KO ESPORTAZIOAK %5,5 JAITSI ZIREN, ETA INPORTAZIOAK %3,1, 2002KO LEHEN SEIHILEKOAN

EUROPAR BATASUNA HELMUGA ZUTEN ESPORTAZIOAK %4,6 GUTXITU ZIREN URTEKO LEHEN SEI HILABETEAN.

2002ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEko esportazioak 2.887,8 milioi eurorenak izan ziren, eta inportazioak 2.456,8 milioi eurorenak, Eustatek emandako datuen arabera. Datu horiek aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, ageri da %8,5 urritu direla esportazioak, eta %9,1 inportazioak. Esportazio ez-energetikoei %6,2ko beherakada izan dute bigarren hiruhileko honetan, eta inportazio ez-energetikoei, berriz, %10,1ekoa.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2001-2002ko lehen sei hilekoa

Unitatea: mila euro

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urtarrila-Ekaina		D %	Urtarrila-Ekaina		D %
	2001	2002		2001	2002	
EUSKAL AE						
GUZTIRA	5.974.437,2	5.648.627,4	-5,5	5.038.530,9	4.883.886,4	-3,1
PRODUKTU MEAZKO ETA ENERGIAZKOAK	334.670,7	224.996,4	-32,8	1.049.078,9	1.040.505,9	-0,8
PRODUKTU EZ-ENERGIAZKOAK	5.639.766,5	5.423.631,0	-3,8	3.989.452,0	3.843.380,5	-3,7
ALAVA/ARABA						
GUZTIRA	1.803.950,5	1.557.441,7	-13,7	905.081,8	1.002.363,4	10,7
PRODUKTU MEAZKO ETA ENERGIAZKOAK	1.817,8	1.938,0	6,6	9.164,3	8.066,2	-12,0
PRODUKTU EZ-ENERGIAZKOAK	1.802.132,7	1.555.503,7	-13,7	895.917,6	994.297,2	11,0
BIZKAIA						
GUZTIRA	2.211.171,3	2.152.620,1	-2,6	2.803.834,5	2.693.348,9	-3,9
PRODUKTU MEAZKO ETA ENERGIAZKOAK	323.612,3	211.829,6	-34,5	999.926,6	1.002.660,2	0,3
PRODUKTU EZ-ENERGIAZKOAK	1.887.559,0	1.940.790,5	2,8	1.803.907,9	1.690.688,7	-6,3
GIPUZKOA						
GUZTIRA	1.959.315,4	1.938.565,6	-1,1	1.329.614,6	1.188.174,1	-10,6
PRODUKTU MEAZKO ETA ENERGIAZKOAK	9.240,6	11.228,8	21,5	39.988,1	29.779,6	-25,5
PRODUKTU EZ-ENERGIAZKOAK	1.950.074,9	1.927.336,8	-1,2	1.289.626,5	1.158.394,5	-10,2

Iturria: EUSTAT

2002ko urtarrila eta ekaina bitarteko balantzean, 5.648,6 milioi euro ageri dira esportazioen partidan, eta 4.883,9 milioi inportazioenean. Horrenbestez, %5,5 gutxitu ziren lehenak, eta %3,1 bigarrenak. Produktu ez-energetikoen esportazioak %3,8ko urritu dira, eta inportazio ez-energetikoei, berriz, %3,7. **Salerosketen guztizko bolumena** 11.013 milioi eurotik 10.532,5 milioira pasa da, 2001eko lehen sei hilekotik 2002kora; hau da, %4,4 txikitu da.


Merkataritza-superabita 764,7 milioi euroena izan da lehen sei hilekoan, aurreko urteko 935,9 milioi euroren superabitaren aldean; ondorioz, esportazioek inportazioen aldean duten estaldura-tasa joan den urteko %118,6tik aurtengo %115,7ra jaitsi da. Produktu ez-energetikoak besterik kontuan hartzen ez badugu, urtebete lehenagoko ia estaldura-tasa bera mantendu da (2001ean, %141,4; eta 2002an, %141,1).

Helburuko lurralde-eremuka, egiaztatzen da ELGEko herrialdeetarako esportazioek bilakaera negatiboa izan dutela (%-4,4): jatsi egin dira bai Europar Batasunera zuzenduak (%-4,6), eta bai antolakunde horretako gainerako herrialdeetara doazenak (%-3,6). Europar Batasunean, Herbeheretara, Erresuma Batura, Irlandara, Greziara eta Finlandiara bideratutako esportazioak baino ez dira handitu. Aipatzekoa da Europar Batasunean sartzeko hautagai diren herrialdeen multzora egindako esportazioen gehikuntza (%+24,2). Orobat, apaldu egin dira ELGEtik datozen inportazioak (%-0,6), nahiz eta Europar Batasunetik datozenak zertxobait goratu diren (%+1,5). Txikiagotu egin dira ELGEko gainerako herrialdeetatik etorritakoak (%-11,4).

Sektore-ikuspegitik, atzerakada ageri da bolumenagatik garrantzitsuenak diren muga-zergetako talde bietan: *ekipo-ondasunak* (%-3,2) eta *metalak eta manufakturak* (%-9,3) taldeetan, alegia. Horrek urritzea eragin du gainerako talde guztietan ere, *bestelako manufakturak* taldean izan ezik.

Inportazioei dagokienez, igo egin dira *ekipo-ondasunak* (%+4,3) eta jaitsi *metalak eta manufakturak* (%-11,1).

Euskal AEko **hiru lurraldeetako** jokaerari begiratzuz gero, alde nabarmenak izan dira guztizko esportazioen bilakaeran. %13,7 jaitsi dira Araban, beherakada izan dutelako *garraio-materiala* (%-16,7), *metalak eta manufakturak* (%-18,1) eta *material elektrikoa* (%-18,8) atalak. Orobat jaitsi egin dira, baina neurri txikiagoan, Bizkaian (%2,7) eta Gipuzkoan (%1,1). Bi lurraldeotan, *ekipo-ondasunek* bilakaera positiboa izan dute (%8,9 eta %3,6, hurrenez hurren). Inportazioez den bezainbatean, gehitu egin dira Araban (%+10,8), eta gutxitu Bizkaian (%-3,9) eta batez ere Gipuzkoan (%-10,6).



Argibide gehiagorako:



Eustat

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido Espinosa

Tel.: +34-945 017 507. Faxa: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es